



Eman hegoak euskarari



Mendebalde-ekialde

Familiakoak izan gabe, Philippe eta Nikolas anaiak baino gehiago izatera iritsi ziren

FELIPE JUARISTI



Philippe Sandsek idatzi du aspaldi irakurri duan libururik gomendagarriena: 'Ekialde-Mendebalde kalea'. Liburu mardula da eta, Sands, lanbidez, ez da idazle, legezizon baizik. Hala ere, tesu bizia ekarri du, arnasa handikoa, tragikoa, pentsamenduaren kizkurak eta oroimenaren adatsa ere lazten dituen. Sakonera iristen den arintasuna erakusten du, nola tanta txiki batek zulatzen duen lur bigun hezea. Edo egileak gogorazten duen aipua begiaren zelaira ekarritik: «Denean zegoen arrakala, hortik barrena sartzen zen argi izpia». Leonard Cohen.

Izpiak arrakala handitzen,

zabaltzen, ikusgarriagoa egiten du; arrakala, nolabait, itxi egiten du, agerian utziz.

León Bucholz, Philippe Sandsen aitona, Lembergen jaio zen, orain Ukrainako Lvov, eta bada Leopoldis ere deitzen dionik. Eserleku bat omen zegoen hiri horretako plaza batean, justizia-jauregiaren aurrean, aldiro nazionalitatez aldatzeko joera zuena: orain poloniarra, gero austriarra, ondoren sobietarra, tarteka nazien mendeko, azkenik, dakigunez, ukrainarra. Eserleku batek historia asko dakizki, eserlekuan esertzen direnek ikusi eta esandakoak, noski.

Lembergen sortu eta zuzenbidea edo legegintza ikasi zu-

ten bi pertsona aipatu behar liburuaren mamia dastatzeko: Hans Lauterpacht eta Rafael Lemkin. Biek ala biek senide eta adiskide gehienak galdu zituzten nazien eskuetan, juduak baitziren arrazaz. Lauterpachtek Londresera ihes egiteko modua aurkitu zuen. Han nolabaiteko ospea lortu zuen legegileen artean. Cambridgen irakasle eta Freuden solaskide. Berari zor diogu «Gizartearen aurkako krimena»ren kontzeptua. Lauterpachten iritzian, gizabanakoa, pertsona indibiduala, da zuzenbidearen neurri nagusia. Rafael Lemkinek ere, ingurukoak galdu ondoren, ihes egitea lortu zuen. Estatu Batuetan eman zioten babesa

eta, bere herrikideak bezala, ospea lortu zuen zuzenbidearen arloan. Lemkini zor diogu, «genozidio»aren kontzeptua. Gizabanakoarenganako ikuspelgia albora uzteke, Lemkinek garrantzi handiagoa ematen die gizartearen barruan bizi eta iraun nahian borrokatzen diren taldeei, legearen babesa eskaintzeko orduan.

Hans Frank, Poloniako gobernu burua Bigarren Mundu Gerran, lurralde hori naziek hartu, okupatu eta urrundutu zuten, Nurembergen epaitu eta kondenatu zituzten buruzagi nazietako bat zen. Urkamendian hil zuten. Hans Frankek ezagutzen zuen Lemberg hiria, egoitzetako bat han izan baitzuen.

Nurembergen Hans Lauterpachten tesia nagusitu zen. Genozidioa ez zen kategoria juridiko izatera iritsi, orduan bederen.

Liburuaren lezioa ez da epai-ketarekin amaitzen. Nikolas Frankek, Hans Franken semeak, Philippe Sandsi lagunduzion arbasoen arrastoak bila. Aitarene oroimena deitoratu

zuen. Arrasto-bilatze horretan, adiskidetasunaz gainera, zerbait berezia sortu zen bien artean. Historia umezurtz-fabrika bat da, eta umezurtz izaerak, askotan, ez du zerikusirik ahaidetasun eta familia ikuspelgiekin. Familiakoak izan gabe, Philippe eta Nikolas anaiak baino gehiago izatera iritsi ziren. Minean minduak.

Beste ondorio bat, liburua irakurrita. Ez da egia edozeinek eleberri bat idatz dezakeela, nahiz gurean edozeinek idatzitako edozeinkeriak irakurtzen diren. Philippe Sandsek eleberri apartekoa idatzi badu, lana hartu duelako da eta, noski, nobelak idazteari buruzko ezagutza ere baduelako.

Liburuan Curzio Malaparten historia ere kontatzen da, Hans Franken gonbidatu izan baitzen, kazetari gisa aritzen zen garaian. Irakurtzen dena ez nuke esango haren oroimenaren salbagarri denik. Idazleak ere, egoera latz eta tamalgarririan, bere hautua egiten du: hiltzaileen alde ala biktimen ondoan. Gero, damua, lantua eta letren karranka.

Memoriaren arkitektura

JON MARTIN-ETXEBESTE

Nortasunaren eraikuntza da eleberri honen ardatza; XXI. mendeko libururik originalenen artean sailkatuta dago, beraz, maisulantzat har daiteke 2001ean zendu zen Sebalden lan hau. Narratzaileak Jacques Austerlitz izeneko pertsonaia ezagutzen du Ambersean 1967an eta hiru hamarkadatan zehar harekin izandako harremana kontatzen dio irakurleari. Liburuari izena ematen dion protagonistaren nortasuna XX. mende hasierako Europaren historiari lotuta dago: 1939an iritsi zen hirira protagonista, haurrez betetako trenen batean, gerraren basakeriatik ihesi. Geroztik, jendartean arrotz sentitzen da, eta bere iragan ordenatzeko beharra izango du bere lekua topatuko badu. Arrotzasun sentipena areagotzeko, eleberri gehiena ez-lekue-tan kokatzen du idazleak (itxarongelatan edo tren geltokian, adi-

bidez): leku horietan pertsonak zenbaki bihurtzen dira eta denbora errutinek baino ez dute markatzen. Errealitatearen pertzepzioa antzaldatua dago eta liburuak atalik ez izateak kaos hori indartzen du. Kaleen arkitektura da protagonistaren memoriaren zimendua eta hotzaren eta kasualitatearen eragina konstante bat da eleberri osoan zehar. Lehen zatiaren irakurketa ez da samurra, zenbaitentzat kontaktaren erritmoa geldoegia izan daiteke eta deskribapenetan inbertitutako espazioa, zabalegia. Bigarren zatian gurasoen bilaketan murgiltzen da protagonista eta berez-berez irakurtzen da.



AUSTERLITZ
W. G. SEBALD
Itz.: Idoia Santamaria. Igela. 374 orr. 24 euro

Edizioari dagokionez, Alain Urrutiaren azal dotorea darama eta autoreak berak txertatutako argazki eta planoen erabilera bitxia ere mantendu dute. Idazlearen dokumentazio lanak errealitatearen eta fikzioaren arteko mugak esploratzen ditu. Idoia Santamariaren itzulpena goimailakoa da. Liburua hasieratik hobeto ulertu nahi duen irakurleak Joseba Sarrionaindiaren gibel-solas argigarritik has dezake irakurketa.

LABUR LABUR

Arte eszenikoen arloko lan bat sarituko da Sormen Bekan

EL CORREO

Gerediaga Elkartek eta Durangoko Udalak Durangoko Azokan emango duten Sormen Beka Da! laguntza aurkeztu dute berriki. Egitasmoaren helburua da «euskarazko sorkuntza sustatzea eta sortzaile berriei bidea erraztuz euren lana ezagutzera ematea».

2022an arte eszenikoen arloko proiektu proposamen bat sarituko da, aurkezpenean azaldu zutenek. Beraz, antzerki, zirko, dantza, performance, magia... disziplinetako proiektuak edo beste kultur disziplina batekin uztartutako proiektuak hartuko dituzte aintzat epaimahaiko kideek.

15.000 euroekin sarituko den proposamena 2023an Szenatokiko, Durangoko Azokan antzerkiari eskaintzen zaion guneko, eskaintza nagusia izatea da deialdi berriaren helburua.

Aurreko lau edizioetan, literatura, mu-



Sormen Beka Da! laguntza aurkeztu dute.

sika, ikus-entzunezko eta proiektu digitalak saritu dira: ATOPIArpg euskarazko rol jokoa, Kai Nakai abeslariaren diskoa, 'Bañolet' lau ataletako telesaila eta 'Barraka' bideojokoa.

2022ko irailaren 21era arte aurkeztu ahalko dira proposamenak, eta ebazpena Durangoko 2022ko Azokan iragarriko dute.

SALDUENAK

FIKZIOA

1 Munduari bira eman zion ontzia
Joseba Sarrionaindia. Pamiela

2 Azken etxea
Arantxa Urretabizkaia. Pamiela

3 M Ama Eme Ume
Estitxu Fernández/Erika Lagoma. Elkar

4 Ez erran inori
Maddi Ane Txoperena. Elkar

EZ FIKZIOA

1 31 ipuin
Anton Txekhov. Elkar

2 Mandamentu hipermodernoak
Iñigo Martínez. Elkar

3 Euskal herriko leiendak
T. Martínez de Lezea/J. L. Landa. Erein

4 Egunkaria, gizarte zibilaren arrakasta
Joan Mari Torrealdeai. Elkar